

laburrean

■ N-121 errepidea bikoiztea onartu dute Nafarroan

JOSE IGNACIO PALACIOS Nafarroako Herrilan, Garrio eta Komunikabide kontseilariak atzo onartu zuen, foru agindu baten bidez, N-121 errepidea bikoiztea Atarrabiako saihebidetan. Proiektuaren arabera, bikoizketa lanak Atarrabiako iparraldeko sarreratik hasieta gasolindegia ondozaino egingo dira. Errepide zati horrek zazpi metroko bi bide izango ditu norabide bakoitzean. Horrezaz gainera, gaur egungo bi bidegurutzak hobetu egingo dira, eta beste berri bat eraikiko da Oihanpea kalerako sarrera egiteko. X

■ Su artifizialen araudia onartu du Jaurilaritzak

EUSKO JAURLARITZAKO Gobernu Batzordeak su artifizialen bidez egiten diren ikuskizunei buruzko arautegi berria onartu zuen atzo. Arautegi horrek prebentzio neurriak biltzen ditu batik bat, segurtasun distantzia, aseguruak, arduren banaketa eta suak jaurti aurreko eta ondorengo kontrolei buruzkoak. Arautegi horrek gainditu egiten du nabarmen orain arte Espainian indarrean zegoena. Atzo Jaurilaritzako iturriek adierazi zuten, Europako Batasunean den arautegi zorrotzenetakoa da Euskal Autonomia Erkidegoan aurki indarrean jarriko dena. X

■ Hasi dira Mungiako saihebidetara eraikitze lanak

JOSU BERGARA Bizkaiko diputatu nagusiak atzo inauguratu zituen ofizialki Mungiako saihebidetara eraikitze lanak. Saihebidetara hori 1999-2016 aldirako prestatu den errepide plan sektorialean dago bildua, Bilbo-Mungia ardatzaren barruan. Ardatz horretako lehen bi zatia eginak daude jada —Derio-Artebakarra eta Artebakarra-Zabalondo— eta Mungiako zatia besterik ez da falta lanak osotara burutzeko. Errepide berri horrek 3.669 milioi pezetako aurrekontua du. X

■ Bidasoako ospitaleak azken urteetako okupazio maila handiena izan zuen iaz

BIDASOAKO eskualdeko ospitaleak 96.000 kontsultatik gora eta 5.306 ospitaleratze izan zituen iaz. Zenbaki horiek azken urteetako altuenak dira, atzo ospitaleko arduradunek aurkeztu zuten txostenak biltzen duenez. Batez beste %76,8ko okupazioa izan zuen, aurreko urtean baino %3 gehiago. Bidasoako ospitaleak Irun eta Hondarribia eta Bortzirietako 78.000 herritarrei eskaintzen dizkie osasun zerbitzuak. X

■ Barakaldoko Zuazoko auzotarrek laguntzak eskatu dituzte gazte konfliktiboak gizarteratzeko

BARAKALDOKO Zuazo-Artiagabeitia auzo elkarteak bertako Udalarri laguntzak eskatu dizkio «euren jarrera eta portaerarekin auzoko elkarbizitzaren aurka egiten duten» gazteentzat ekimen bereziak antolatu eta haien gizarteratzea lortzeko. Txiki Castaños auzo elkarteak ordezkariek atzo jakinarazi zuten, Udaleko Kultura Saila, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak eta Droga-menpekotasun Bulegoarekin azken xehetasunak lotzen ari dira egitasmo hori indarrean jarri ahal izateko. Udaltzaingoa auzoan zaintza berezia jarri izanak ez duela arazoa konpondu jabetuta erabaki du elkarteak Udalarrekin batera elkarlanean hastea. X

■ Gernikako Udalak onartu egin du hondakinen gaikako bilketa zentroa eraikitze eskaria

GERNIKAKO Udaletxeak oniritzia eman zion atzo Bizkaiko Diputazioak herri horretan bertan hondakinen gaikako bilketa egiteko zentro bat eraikitze egin duen eskariari. Garbigune izeneko zentroa Gernikako Laminaga auzoan egongo da, bertan dagoen Transferentzia Estazioa eraikuntza aprobetxatuta. Berregokitze lanak egin eta hondakin biltegia eraikitze 16,5 milioi pezetako jarriko ditu Gipuzkoako Diputazioak. Garbigune berriaren metalak, egurra, obretako hondakinak, oihalak, pilak, enpresetan erabilitako olio eta papera bilduko dituzte besteak beste. X



Solidarioek atzo eskaintako prentsaurrekoa.

MIKEL UHARTE

30 ibilgailu geldiarazi zituzten 'solidarioek' Itoizko bidean

Gobernuak dio igandeko sabotajeak ez duela kalterik eragin

Solidarioek' hogeita hamar bat ibilgailu geldiarazi zituzten igandean Agoitz-Nagore lotuko duen errepide berrian, motorretan sartutako burdinazko ezpalen bitartez. Atzo arratsaldean artean atxilotuta zeuden bi gazteak, eta Agoizko epailearen aurrean deklaratu zain zeuden.

Alberto Barandiaran / Iruñea

SABOTAJEA igande gauean izan zen, Guardia Zibilaren zaintza saihestu ondoren. Bi gazteek errepide berria eraikitze erabil-tzen ari diren ibilgailuetan burdina sartu zuten, eta gero hanka egin zuten. Astelehen arratsaldean Iruñeko Entzutegi Probintzialaren epailearen aurrean aurkeztu ziren, eta entregatu zuten ekintzaren arrazoiak zehazten zituen gutuna. Epaileak espetxera bidali zituen bi neskak, Jaione Irisarri eta Piluka Perona, eta atzo artean Iruñeko Guardia Zibilaren Komandantzia zeuden atxiloturik. Gaur-edo Agoizko epailearen aurrean deklaratu dute.

Agoitz-Nagore errepidea funtsezkoa da Itoizko urtegiarako, eraikitzen ari dena betez gero oraingo errepidea ur azpian geldituko lirakeelako, eta proiektu-

tuan dagoen bigarren presa errepide zaharraren inguruan eraiki beharko lirakeelako. *Solidarioek* ustetan, lan horien geldiaraztea proiektu bera geldiaraztea da. Esan behar da Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuak atzo bertan esan zuela sabotajeak ez zuela kalte material aipagarrikerik eragin, eta lanek «normaltasun osoz» jarraitzen zutela Agoitz-Nagore errepidean.

Horma nagusia bukatuta • Atzoko prentsaurrekoan *solidarioek* bi nesken bideo bat erakutsi zuten, eta hor taldeko bi kideek sabotajea egiteko asmoa azaltzen zuten. Prentsaurrekoan esan zuten, Itoizko horma nagusia ia bukatuta dago, eta errepide berri hori da orain lanetako arduradunen helburu nagusia. *Solidarioek* gogoratu zuten Espainiako Entzutegi Nazionalarentzat lan horiek legez kanpokoak direla, baina inoiz ez

direla geldiarazi. «Hasieran presa nagusia izan zen, orain errepide, gero izango da bigarren presa —hasi dira jada horretarako lanak—. Hurrengo etorriko da desforestazioaren, landarearen eta, azkenean, populazioaren egozte».

Taldeko kideen ustetan, Auzitegi Konstituzionalak eman behar duen azken erabakiak ez ditu gauzak aldatuko. «Auzitegi hori da politikarien eragin handiena duena, eta Itoizko urtegiaren martxari baietza emango dio seguruenerik, argudiatuz, Entzutegi Nazionalak egin bezala, lanak geldiarazteak kalte handia ekarriko liekeela administrazioei». Horregatik, aurrerantzean bide beretik jarraituko dutela azaldu zuten *solidarioek*. «Lanek geldirik dirauten minutu bakoitza, ordu bakoitza, guretzat irabazitako denbora da. Hori izango da gure helburua lanen betiko gelditzea lortu arte», esan zuten.

Atzo Guardia Zibila eginiko kalteen neurria aztertzen ari zen lanetan bertan. Hori da argitzeke dagoen puntua, *solidarioek* ehundaka milioi aipatu baldin bazuten ere. X

ESKELAK

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(943) 300 222



Basoko bezetasunean
suma zaitzakegu
eguzki epeletan
zure irrifarre zabalak
besarkatuko gaitu

Betirako gure artean

ZURE LAGUNAK

Alex

Soraluze, 1998ko irailak 23



Beti gure oroitzapenean
izango zaitugu



Alex

Soraluze, 1998ko irailak 23